


INMA GONZALEZ

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoaren agirizaina

1 542an Rodrigo Merkado Zuazolak Oñatiko Unibertsitatea sortu zuenetik, eraikuntza honetan ia beti egon da irakaskuntzarekin edo kulturarekin lotutako erakunderen bat. Gaur egun beran kokatzen diren hiruretatik Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa dugu zaharrena. Hala eta guztiz ere, ez da oso ezaguna herritarren artean. Duela 11 urtez gero bertako artxibozaina den Inma Gonzalez eskatu diogu beronen berri ematea.



- Noiz sortu zen Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa?

1942an Hezkuntza Nazionalako Ministeritzaren aginduz Azpeitia, Donostia eta Bergarako epai-barruti edo partidu judicialetakotarioen protokoloak Oñatiko Unibertsitate zaharra ekartzen hasi ziren. 1947ko buzturako beraien egokitzeta antolakuntza lanak amaituzat eman ziren.

- Baina zer dira notarioen protokoloak?

Berez, urtean zehar eskriturak edo notario batek baimen-ututako eskritura orijinalen biluma ordenatua da. Baina praktikan urte ezberdinak naharian egon daitezke.

Eskritura hauetan partikular do norbanakoen artean eginko kontratuak daude: zkontza-kontratuak, obrak urutzekoak, testamentuak...

Eskriturak notario bakoitzaren esku geratzen dira 25

urtez, ondoren epai-barrutiko notario batek gordetzen ditu eta ehun urte pasatutakoan historiko bilakatzen dira eta dagokien artxibora eraman behar dira.

- Gipuzkoako notari-protokolo guztiak artxibo honetan gordetzen dira?

Ez, Tolosako epai-barrutikoak Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorrean daude 1931 geroztik.

Bestalde, ehun urtetik gorako agiriak, legez, artxibora eraman behar diren arren, hona, leku faltaz batez ere, epai-barruti bakoitzetik azkenengo ekarri direnak hauetxek dira: Bergaratik 1887koak, Donostiatik 1880koak eta Azpeitiatik 1847koak.

- Beste era bateko agiri edo dokumentuak ere bator omen dira hemen.

Bai, horrela da. Notari-protokoloen fondoa ugariena bada ere, -725 metro linealetik gora okupatzen dute 12.530 legajok,- "Contaduría de Hipotecas" delako beste fondo bat ere badago- 23,5 m.l., 712 legajo-. Jabetasun erregistroa ezarri aurretik zegoena dela esan dezakegu. Kargaren bat zuten ondasunak herrika jasotzen zirenez, zenbait datu bilatzeko orduan erretasun handia ematen dio horrek ikertzailari.

Azkenik, artxibo honetan eskuragai dagoen hirugarren fondoa, Unibertsitate zaharren artxiboak eta liburutegiak

osatutakoa da. Bere sorrerari buruzko dokumentuak eta etapa ezberdinetakoak daude hemen.

- 1942a artxiboa hau sortu zenetik eraikuntza honen baitan agiriak gela berdinetan egon dira? Zenbat gela okupatzen dute?

Hasieratik dokumentu gehienak erreka aldera ematen duten hiru gela haunditan egon dira, depositoak edo gordailuak deitzen diegu. Gero irakurgela dago, 10 bat pertsonentzako lekua duena, eta azkenik, bulego bezala erabiltzen dugun gela txiki bat.

Beti gela berdinetan egon bagara ere, aldatu dugun bakarra banaketa izan da, hau da, duela urte batzuk irakurgela orain bulegoa dagoen tokian zegoen eta alderantziz.

- Artxibo hau zein erakunderen menpe dago?



Gu, langileok, Gipuzkoako Diputazioak gara, baina pro-

Gure ardurarik nagusiena erabiltzaileei informazioa ahalik eta errazten aurkitzeko bideak eskaintzea da.

OÑATI

Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z^hg (Olano) Tfnoa: 78 29 12
OÑATI



Artxibo honetan XV. mendetik XIX. mendera arteko dokumentuak gordetzen dira.

tokoloak eurak oraindik trasferitu gabe daude, beraz Madrileko ministeritzaren ardurapean daude.

- Artxibo berri bat, erakuntza berri bat, Ibarra aldean egingo zela zabaldu zen.

Bai, baina nik ez dakit askotarik horretaz. Udala eta Madrilen arteko akordio bat izan omen zen, baina momentuz gelditu dagoela dirudi.

- Zein egoeratan daude agiriak? Duela urte batzuk, oso egoera onean ez zeudela aipatu zen komunikabideetan...

Agian hezetasun eta tenperatura baldintza egokienetan ez daude, baina arazo larriena leku-faltarena da: lan egiteko, agiri berriak ekartzeko eta hobeto antolatzeke eta erabiltzaileak hobeto atenditzeko.

- Unibertsitatearen azkenengo berrikuntzak eraginik izan al du artxibategian?

Bai, erakuntza osoan lehiak aldatu zirenez, artxibokoak ere berrizatu egin ziren; eta gordailuetako zurezko apalen ordean burdinazkoak ipini ziren.

- Badirudi Nazioarteko Lege Soziologia Erakundeak sortu zenean aukera bat galdu zela.

Bai, baina horrela dira gauzak.

- Zein da eguneroko lana artxiboan?

Erabiltzaileei eskatzen duten agiriak eskuratzea, agintzen badute, fotokopiak ateratzea, eta, batez ere, tresna deskriptiboak prestatzea, hau da,

agiritan dagoena bezeroek errezago topatzeko bideak jartzea. Lehenengoko inbentarioa Fausto Arozenaren ekimenez 1947an kaleratutako da, eta hori oinarri bezala hartuz, eguneratua, datu-base bat osatzen ari gara.

Unibertsitateari dagokion inbentarioa beste datu-base batean kontsultatu daiteke. Eta apurka-apurka, dokumentuetan zehar sakabanatuta aurkitzen diren dokumentu grafikoen - eraikuntzetako planoak, marrazkiak...- beste inbentario bat moldatzen ari gara.

- Hondatutako dokumentu eta liburuen errestituzio-lanik egiten al duzue Oñatin?

Ez, hemen ez dugu ez lekurik ezta langilerik horretan has-teko.

Tolosako artxibo orokorreko errestituzio laborategira bidaltzen ditugu konpondu beharra duten agiriak.

- Zein eratako jendea etortzen da agiri zahar hauek aztertzerantz? Zeren bila etortzen da?

Hiru mota nagusitan sailkatu daitezke hona datozenak. Ikertzaile profesionalak: historialariak, etnografoak, toponimia-aztertzaileak... Boladak ere izaten dira; orain dela gutxi medikuntzaren historiak tesidoktoraletarako modako gaia zela zirudien. Ikertzaile profesionalak proportzioan gutxiago izan arren, dokumentu gehien erabiltzen dutenak dira.

Bezero arruntenak edo normalenak, historiazaletasuna daukatenak dira. Ez da arraroa jubilatutako ikustea; hauek, denbora libre gehiago dutelako, zerbait aztertzei ekiten diote. Batzuetan euren familiaren historiarekin hasten dira eta gero beste gai batzuekin jarraitzen dute.

Azkenik, badira arazo puntual bat dela-eta, hona argibidila hurbiltzen direnak; adibidez, etxe edo baso-sailen jabetzari buruzkoak.

- Nondik etortzen da jendea? Oñatiarrak etortzeke dira?


Bai, Oñati Bergarako epaibarrutikoa izanik, hemen gordetzen baitira herriko agiriak Bestela, probintzia guztikoak etorri ohi dira; Tolosa aldekoak ez hainbeste, jakina.

Nabarmena da, era berean Bizkaitik eta beste lurraldeetatik etortzen den jende-kopuru harremanak ugariak izan zirenonbait.

- Aurkitzen al du jendea bilatzen duena? Oztopor izaten al du?

Denetik dago. Badaude, oso pertsonalak izanda, euren artxiboko aurkikuntza haundiak egiten dituztenak, eta beste batzuk, ostera, inolako argibide topatzen ez dutenak.

Esan beharra dago epaibarruti bakoitzeko protokoloa



Irakur-gelan ikertzaileentzako lagungarriak diren liburu espezializatuak ere badira.

JON
ARGAZKIGINTZA
Kale Barria, 28 behea
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

dw KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAINKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis.
Tfnoa: 77 09 92
ARRASATE
San Lorenzo, 39
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI